

## **KONTSULTA PUBLIKOA, DONOSTIAKO UDALAK 1998KO AZAROAREN 23AN ONARTUTAKO ERAIKUNTZA ORDENANTZA OSAGARRIAK ALDATZEKO PROPOSAMENA ONARTU AURREKOA**

Donostiako Udalak 1998ko azaroaren 23an onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak 199ko urtarrilaren 14an argitaraturiko Eraikuntza Ordenantza Osagarriak eguneratzeari ekin nahi dio Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritzak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoa betetzeari begira, burutu nahi duen proiektuaren azalpen memoria hau idatzi du.

### **Konpondu nahi duen arazoa**

2010eko ekainaren 25ean behin betiko onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokor indarrekoak xedaturikoa betetzea, *Urbanizatzeko eta eraikitze udal Ordenantzak* arautzen dituen 5. artikuluan xedatzen duenez, hura garatzeko, eta indarreko hirigintzako legeetan ezarritakoaz bat, urbanizatzeko eta eraikitze udal Ordenantzak egin eta onartu beharra dago.

### **Aldatzearen beharra eta egokitasuna**

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zenetik zortzi urte igaro direnez gero, egokia da eraikuntzako ordenantza eguneratzea, planean xedaturikoa betetzeko.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraz bat, bidezkoa da gai horretan esku hartzeko irizpideak arautzea, edukia hirigintzako legeetan ezarritako irizpideetara egokitzea eta esku hartzeko parametroak zehaztea, egoki irizitako alderdi guztietarako, baldin eta mota honetako dokumentu batean arautu badaitezke.

### **Aldaketaren helburua**

Eraikuntzako ordenantza osagarriak eguneratzea.

### **Irtenbide aukerak, araudizkoak eta ez-araudizkoak**

Honako honetan, legeek hartarako ezarritako prozeduraren arabera landu eta onartu behar dituzte ordenantzak.